

Merezi du!
¡Merece la pena!



GOZATU EUSKARAREKIN!

Seme-alaba eleaniztunen
gurasoentzako aholku eta
baliabideak

¡DISFRUTAD CON EL EUSKERA!

Consejos y herramientas para
padres y madres de niños y
niñas plurilingües

AURKIBIDEA

ÍNDICE

Zer da gida honetan topatuko duzuen?

¿Qué es lo que os encontraréis en esta guía? 2

Ohiko zalantzak eta kezak

Inquietudes y dudas habituales 3

- **Familia motaren arabera** / Según el tipo de familia 4
- **Eskola eta hizkuntzari buruzkoak** / Relacionadas con la escuela y el idioma 6
- **Hizkuntzaren erabilerari buruzkoak** / Relacionadas con el uso del idioma 10
- **Orokorrak** / Generales 12
- **Gogoan izan...** / Tened en cuenta... 15

Euskarazko baliabideen taula

Tabla de recursos de euskera 16

ZER DA GIDA HONETAN TOPATUKO DUZUENA?

¿QUÉ ES LO QUE ENCONTRARÉIS EN ESTA GUÍA?

Gure seme-alabak hizkuntza bat baino gehiago ikasten ari dira eta hori beti da ona. Dena dela, guraso askok ikasketa prozesuaren inguruko zalantzak izaten dituzue seme-alabek ikastetxean euskaraz ikasten dutelako, eta gure zonaldean hizkuntza gutxitua delako.

Lehen aipatutako zalantzen bilduma osatu dugu, baita horien erantzunak ere. Bilduma honen helburua da gurasook gai honi buruz izan ohi dituzuen kezka edota zalantza horiei aurre egitea, baita euskarak familian presentzia gehiago izateko baliabideak eskaintzea ere.

Ez izan zalantzarik, euskaraz ikasteak ez du desabantailarik eta onura asko dakartza: kognitiboak, kulturalak eta lanerakoak. Euskaraz badakizue, etxean euskaraz aritzea umeei oso lagungarria egingo zaie ikaste prozesuan; baina, oraindik ez badakizue ere, asko egin dezakezue. Eta merezi du.


Nuestros hijos e hijas están aprendiendo más de una lengua, y eso siempre es positivo. Pero muchas madres y muchos padres tenéis dudas sobre el proceso de aprendizaje, ya que estudian en euskera, lengua oficial socialmente minoritaria en nuestro entorno.

Hemos completado una recopilación de las dudas antes mencionadas y sus respuestas. Con este material lo que queremos es responder a esas preguntas o dudas frecuentes que os planteáis en torno a este tema. Asimismo, os indicamos una serie de recursos para que el euskera tenga mayor presencia en el ámbito familiar.

No dudéis que estudiar euskera no va a tener ninguna desventaja, y las ventajas son muchas: cognitivas, culturales y laborales. Que nuestros hijos e hijas estén estudiando en una lengua que las madres y padres desconocemos no significa que no podamos participar en el proceso de aprendizaje. Puede suponernos un esfuerzo, pero nuestros hijos e hijas ganarán mucho, y merece la pena.

OHIKO ZALANTZAK ETA KEZKAK

INQUIETUDES Y DUDAS HABITUALES



FAMILIA MOTAREN ARABERA
SEGÚN EL TIPO DE FAMILIA



ESKOLA ETA HIZKUNTZARI BURUZKOAK
RELACIONADAS CON LA ESCUELA Y EL IDIOMA



HIZKUNTZAREN ERABILERARI BURUZKOAK
RELACIONADAS CON EL USO DEL IDIOMA



OROKORRAK
GENERALES



GOGOAN IZAN...
TENED EN CUENTA...

FAMILIA MOTAREN ARABERA

SEGÚN EL TIPO DE FAMILIA

Euskaraz ez badakigu, gure seme-alabak lagundu ditzakegu hizkuntza hau ondo ikasi eta elebidun izateko?

Zalantzarik gabe. Horretarako, seme-alabak euskarazko ereduetan matrikulatzeaz gain, aukera oso interesgarria da haiei aukerak eskaintzea eskolatik kanpo ere euskara erabiltzeko, besteak beste, euskaraz egiten diren kultur, aisialdi edota eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeraz animatuz, euskarazko eskola partikularrak eskainiz eta zainketarako pertsona euskaldun bat kontratatuz. Oso aberasgarria da euskaraz hitz egiten duten pertsonak ezagutzea seme-alabek dakitena erabili eta osatu ahal izateko. Zentzu horretan eskaintzen dizkiezuen aukera guztiekin lagunduko dituzue euskararen ikaskuntza prozesuan nahiz eta zuek euskara ez jakin.

Nahiz eta oso ondo ez hitz egin, gure seme-alabekin erabili beharko nuke?

Dakizuna erabili horretarako gai sentitzen zaren egoeretan. Jarrera horrekin zure seme-alabei mezu garrantzitsu bat transmititzen ari diezu, hain zuzen ere, euskara baloratzen duzula eta ahal duzunean erabiltzen duzula. Kontestuak eta hizkuntza gaitasunak baldintzatuko dute zein hizkuntza erabili. Dena dela, guraso eta seme-alaben arteko harreman hizkuntza ez da inoiz oztopo izan behar umearen izaera eta haren mundu sinbolikoaren oinarri izango diren balio etiko eta kulturalak transmititzeko.

Si no sabemos euskera, ¿podemos ayudar a que nuestros hijos e hijas lo aprendan bien y sean bilingües?

Sin duda. Para ello, además de matricular a vuestros hijos e hijas en modelos de enseñanza en euskera, una opción muy interesante es ofrecerles oportunidades para utilizar este idioma fuera del ámbito escolar como por ejemplo haciendo que participen en actividades culturales o de ocio/extraescolares que se desarrollen en euskera, ofreciéndoles clases particulares en euskera o contratando una persona que sepa euskera para que les cuide. Resulta muy enriquecedor que conozcan a otras personas que hablen euskera, de esa manera podrán practicar y ampliar lo que saben. Es por ello que cuantas mas opciones les ofrezcáis en ese sentido, les ayudaréis en el proceso de aprendizaje del euskera aunque vosotros no sepáis.

Aunque no hable muy bien euskera, ¿debo utilizarlo con nuestros hijos e hijas?

Si sabes algo de euskera, utilízalo en las situaciones en que tu te sientas capaz de ello. Con esta actitud les harás ver que valoras el euskera y que lo utilizas en la medida de tus posibilidades. Ahora bien, el contexto y la capacidad lingüística deben determinar el uso de una u otra lengua en cada situación. En el proceso de formación la lengua de relación entre padres/madres e hijos/hijas no debe impedir la transmisión de los valores éticos y culturales que irán formando la personalidad y el mundo simbólico interior de los niños y niñas.

FAMILIA MOTAREN ARABERA

SEGÚN EL TIPO DE FAMILIA

Eta biok euskaldunak izanda, familiako hizkuntza euskara izateaz gain, zerbait gehiago egin dezakegu?

Euskaldunak bazarete, zuen artean eta familian euskaraz egitea da seme-alabentzat eredurik egokiena. Seme-alaben lagunei ere euskaraz egitea ona da. Ez kezkatu umeeekin euskaraz ari zaretenean euskaraz ez dakien bat inguruan egoteagatik. Gainera, oso ekarpen positiboa egingo diezue seme-alabei familiatik eta eskolatik kanpo euskara eskaintzen badiozue: euskaraz egiten diren kultur, aisialdi edota eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzera animatu, euskarazko eskola partikularrak eskaini edota zainketarako pertsona euskaldun bat kontratatu.

Etorri berriak gara. Euskaraz ikasi beharko lukete gure seme-alabek? Eta familiako gainerako kideek?

Oro har, familia bat herrialde batetik beste batera joaten denean, familia horrentzako kezka izan ohi da familiako txikienek harrera herrialdeko hizkuntza ahalik eta azkarren ikastea. Gu bizi garen lekuan bi hizkuntza ofizial daude: euskara eta gaztelania. Hainbat lekutan gaztelaniaren erabilera zabalduago dagoen arren, euskara jakiteak abantailak besterik ez die eskainiko zuen seme-alabei eta gainontzekoei ere bai: kognitiboak, kulturalak eta lanerakoak. Horregatik seme-alabak eta zuek euskara ikastera animatzen zaituztegu.

Y siendo los dos euskaldunes, además de hablar euskera en casa, ¿podemos hacer algo mas?

Si los dos habláis euskera, el mejor ejemplo para vuestros hijos e hijas es que habléis euskera entre todos vosotros/as. Además, hablarles en euskera a los amigos y amigas de vuestros hijos e hijas siempre será positivo. No os preocupéis si cuando les habléis en euskera hay alguien que no sepa. Además, les haréis una aportación muy positiva si les ofrecéis actividades en euskera fuera del ámbito familiar y escolar: animadles a que participen en actividades culturales o de ocio que se desarrollen en euskera, actividades extraescolares, ofrecedles clases particulares en euskera y/o que la persona cuidadora sepa euskera.

Acabamos de llegar, ¿deberían aprender euskera nuestros hijos e hijas?, ¿y el resto de la familia?

En general, cuando una familia se traslada de país una de las mayores preocupaciones es que los mas pequeños de la familia aprendan cuanto antes el idioma del nuevo lugar en el que van a vivir. En el lugar donde nosotros vivimos existen dos idiomas oficiales: euskera y castellano. A pesar de que el uso del castellano este mas extendido, el saber euskera sólo les traerá beneficios a vuestros hijos e hijas así como al resto de la familia: beneficios cognitivos, culturales y laborales. Es por ello que os animamos a que vuestros hijos e hijas y vosotros/as aprendáis euskera.

ESKOLA ETA HIZKUNTZARI BURUZKOAK

RELACIONADAS CON LA ESCUELA Y EL IDIOMA

Onurarik izango dute gure seme-alabek elebidunak badira?

Elebidun izateak onurak besterik ez dizkie ekarriko: kognitiboak, kulturalak eta laboralak. Elebakar edo eleanitz izateak eragina izango du, besteak beste, haien izaeran, gizarte-harremanetan, hezkuntzan, lan aukeretan eta pentsamoldean. Elebiduntasunari esker mundu oso eta zabalago bat izango dute eskuragarri, ez izan zalantzarik.

Bigarren edo hirugarren hizkuntza bat ikasteak kalterik eragingo dio lehen hizkuntzaren garapenari?

Ez. Ildo horretan egindako ikerketa zientifikoei jarraiki, elebitasuna onuragarria da hizkuntzen jabeakentzarako; eta, gainera, lehen hizkuntzarentzat ere mesedegarria da. Beraz, bigarren edo hirugarren hizkuntza batek ez dio lehenengoari kalterik egingo eta hainbat abantaila ekarriko dizkio elebidun/hirueledunari, besteak beste, pentsatzeko eta arrazoitzeko molde zabalagoak, eta gizarte, kultur eta lanerako abantailak.

Elebitasunak edo hirueletasunak eragina dauka ikas-errendimenduan?

Umeek hizkuntza bat baino gehiago jakiteak ez dio kalterik egiten eskola-errendimenduari. Aitzitik, hainbat hizkuntza jakiteak abantaila edo onurak besterik ez dizkio ekarriko, besteak beste, bi (hiru, lau...) hizkuntzatan komunikatu ahal izatea, lan aukera gehiago izatea eta bi (hiru, lau...) kultura ezagutzea. Gainera, herrialde batzuetan egindako ikerlan pedagogikoen arabera, bi hizkuntza egoki garatzen dituzten eta hizkuntza horietan ikasteko gai diren neska-mutilek ikasle elebakarrek baino eskola-errendimendu handiagoa izan ohi dute.

¿Qué ventajas tendrán nuestras hijas e hijos si llegan a ser bilingües?

Ser bilingüe sólo les aportará cuestiones beneficiosas: cognitivas, culturales y laborales. Ser bilingüe o monolingüe influirá, entre otros, en su forma de ser, en la red social que tengan, en la enseñanza, en las oportunidades laborales y la forma de ver la vida. Gracias al bilingüismo tendrán acceso a un mundo mas completo y amplio, no lo dudéis.

El aprendizaje de un segundo o tercer idioma, ¿causará problemas en el desarrollo del primero?

No. Las investigaciones científicas realizadas en ese sentido indican que llegar a ser bilingüe favorece la adquisición del lenguaje y es beneficioso incluso para el primer idioma. En ese sentido, el segundo o tercer idioma no interfiere en el primero; es mas, proporciona a la persona bilingüe/trilingüe mayores oportunidades, entre otros, de pensamiento y razonamiento, ventajas sociales, culturales y laborales.

¿Afecta el bilingüismo o el trilingüismo al rendimiento académico?

Saber y utilizar dos o más idiomas no afecta en absoluto al rendimiento escolar. Sin duda, saber expresarse en dos o mas idiomas les aportará solamente ventajas o cuestiones beneficiosas, entre otras, poder comunicarse en dos (tres, cuatro...) idiomas, tener mas oportunidades laborales y conocer dos (tres, cuatro...) culturas. Además, según investigaciones pedagógicas realizadas en varios países muestran que los niños y niñas que llegan a desarrollar bien dos idiomas y tienen capacidad para estudiar en ellos, poseen con frecuencia un rendimiento escolar mayor que los y las estudiantes monolingües.

ESKOLA ETA HIZKUNTZARI BURUZKOAK

RELACIONADAS CON LA ESCUELA Y EL IDIOMA

Hemengo Hezkuntza Sistemak nola lagunduko ditu gure seme-alabak eleanitzak izateko? Zer eskaintzen du EAEko Hezkuntza Sistemak?

Euskal Hezkuntza Sistemaren ezaugarri nagusiak hauek dira: eskolatzeari borondatezkoa da 0-6 urteko umeentzat eta nahitaezkoa 6-16 bitartekoentzat. Hiru ikasmaitan banatzen da:

- .-Haur Hezkuntza (HH). 0-6 urte bitarteko umeentzat.
- .-Lehen Hezkuntza (LH). 6-12 urte bitarteko umeentzat.
- .-Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH). 12-16 urte bitarteko gazteentzat.

Aurrekoa oinarri hartuta, ikasleek gure Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan ikasteko aukera dute hiru ikastereduren arabera:

- .-D eredua. Irakasgai guztiak euskaraz egiten dira, gaztelania izan ezik.
- .-B eredua. Irakasgai batzuk euskaraz egiten dira eta beste batzuk gaztelaniaz.
- .-A eredua. Irakasgai guztiak gaztelaniaz egiten dira euskara izan ezik.

Eredu guztietan, jada, hirugarren hizkuntza (oro har, ingelesa) presentzia izaten ari da adin jakin batetik aurrera.

¿Cómo ayudará el Sistema Educativo de aquí a que nuestros hijos e hijas sean bilingües? ¿Qué ofrece el Sistema Educativo de la CAV?

Las características principales del Sistema Educativo Vasco son las siguientes: la escolarización es voluntaria para niños y niñas de 0-6 años y obligatoria para los de 6-16 años. Se divide en tres etapas:

- .-Educación Infantil. Para niños y niñas de 0-6 años.
- .-Educación Primaria. Para niños y niñas de 6-12 años.
- .-Educación Secundaria Obligatoria (ESO). Para jóvenes de 12-16 años.

Teniendo como base lo mencionado, el alumnado tiene la opción de recibir la enseñanza en las dos lenguas oficiales de nuestra Comunidad en función de tres modelos educativos existentes:

- .-Modelo D. Todas las asignaturas en euskera, excepto lengua castellana.
- .-Modelo B. Algunas asignaturas en euskera y otras en castellano.
- .-Modelo A. Todas las asignaturas en castellano excepto euskera.

En todos los modelos el tercer idioma (en general el inglés) ya está teniendo presencia a partir de una determinada edad.

ESKOLA ETA HIZKUNTZARI BURUZKOAK

RELACIONADAS CON LA ESCUELA Y EL IDIOMA

Euskaraz ez badakigu, etxerako lanekin lagundu diezaiekegu? Nola?

Noski baietz! Horretarako zenbait bide aipatuko dizkizuegu jarraian eta, ziurrenik, ikastetxean bertan beste bideren bat aipatuko dizuete (umeen eskola liburuen gaztelaniako bertsioa eskuratu, gurasoek egindako whatsapp talde edo antzekoak, e.a). Nolanahi ere, gogoan izan garrantzitsuena dela umearen autonomia indartzea etxerako lanak egiteko.

Euskara ulertzen ez baduzue, aukera bat izan daiteke seme-alabei eskatzea etxerako lanak itzultzeko eta zailtasunei elkarrekin aurre egiten saiatu. Modu horretan, zuek ere euskara ikasiko duzue. Euskaraz ondo jakin ez, baina zerbait ulertzen baduzue, irtenbiderik onena izan daiteke seme-alabak euskaraz entzutea eta behar izanez gero, gaztelaniaz laguntzea.

Ikaste prozesu honetan, lehen esan bezala, umearen autonomia indartzea da gauzarik garrantzitsuena, ikasteko ohitura onak hartu ditzatela. Lan horretan bidelagun izan behar zaituztete eta ez irakasle. Helburua da haiek laguntzea eta ikasketa ohitura onak hartzea.

Hiru dira etxerako lanak egiteko ezaugarriak eta hiru modutan lagundu ditzakezue:

.-Ulermena. Egin behar dena ulertzea. Horretan lagundu diezaiekezue ariketan eskatzen dena itzuli eta zuei azaltzeko eskatuta. Hitz edota pasarteren batekin arazoak izanez gero, interneteko itzultzaileak erabiltzea aukera ona izan daiteke.

.-Komunikazioa. Gai bat garatu eta azaldu behar dutenean eska diezaiekezue erabiliko dituzten argudioak zuei gaztelaniaz azaltzeko; modu horretan ideiak argitzen eta estrukturatzen lagunduko diezue.

.-Memoria. Zuen laguntza esparru honetan ideien uztarketa izan daiteke ikasi behar dutena hobeto barneratu eta gogoratzeko: bizi edo ikusi izandakoa gogoratuta, haiekin birpasatuta, e.a.

Si no sabemos euskera, ¿podemos ayudarles con los deberes?, ¿cómo?

¡Claro que sí! Para ello os mencionaremos a continuación unas pautas orientativas y, seguramente, en el centro educativo también os indiquen otras vías que podéis seguir (conseguir los libros de texto en versión de castellano, grupos de whatsapp o similares que se hayan creado entre padres y madres, etc). No obstante, lo más importante es reforzar la autonomía de vuestros hijos e hijas a la hora de hacer los deberes.

Si no sabéis euskera una opción puede ser pedirles a vuestros hijos e hijas que os traduzcan los deberes y así intentar hacer frente de manera conjunta a posibles dificultades que les hayan surgido. De esa forma tu también aprenderás euskera. Si no sabéis bien euskera pero entendéis algo, la mejor solución puede ser escuchar las explicaciones que vuestros hijos e hijas os den en euskera y ayudarles después en castellano.

En este proceso de aprendizaje, como hemos dicho antes, lo más importante es reforzar la autonomía de los hijos e hijas para que así adopten unos buenos hábitos de estudio. En ese camino os habrán de tener de compañeros y no profesores/as. Lo que queréis es ayudarles y que logren buenos hábitos de estudio.

Son tres las características de los deberes, así que podéis ayudarles a través de tres vías:

.-Comprensión. Comprender lo que hay que hacer. Podéis ayudarles a comprender la tarea a realizar pidiéndoles que os traduzcan y expliquen el enunciado. En caso de tener dificultades con alguna palabra o idea, una buena opción puede ser utilizar los traductores que encontraréis en internet.

.-Comunicación. Cuando han de desarrollar y explicar un tema podéis pedirles que os expliquen en castellano los argumentos que van a utilizar; de esa manera les podréis ayudar a aclarar y estructurar las ideas.

.-Memoria. El apoyo que les podéis dar en este sentido es ayudarles con las asociaciones de ideas, recordando lo visto o vivido para que les sirva de pista y así memorizar las lecciones.

ESKOLA ETA HIZKUNTZARI BURUZKOAK

RELACIONADAS CON LA ESCUELA Y EL IDIOMA

Nola lagundu seme-alabei euskaraz irakurtzen eta idazten?

Hasteko, gurasoek oso argi izan behar duzue irakurketa eta idazketa jarduera atseginak izan behar direla umeentzat. Saio horiek, beraz, erakargarriak izan behar dira eta ingurua ulertzeko bidea eman behar die. Era berean, umezaroan irudimena lantzeko liburu bizi, erakargarri eta barre-eragileak behar dira; eta horiek euskaraz eskainiz gero, euskararekiko atxikimena ere indartuko duzue. Modu horretan euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasunaren oinarri sendoa jarriko diezue.

¿Cómo ayudar a nuestros hijos e hijas a aprender a leer y escribir en euskera?

Ante todo, los padres y las madres debéis tener muy presente que la lectura y la escritura deben ser experiencias agradables. Deben ser por lo tanto experiencias atractivas que deben darles oportunidades de comprender mejor su propio mundo. Asimismo, en la niñez se necesitan libros imaginativos, vivos e interesantes, que les hagan reír y estimulen su imaginación; y si estas experiencias se las ofrecemos en euskera, mejoraremos también su apego hacia el idioma. De esa manera les ofreceréis una base firme para que se aficionen a la lectura y escritura.

HIZKUNTZAREN ERABILERARI BURUZKOAK

RELACIONADOS CON EL USO DEL IDIOMA

Umeek badakite euskaraz, baina haien artean gaztelaniaz aritzen dira. Zergatik gertatzen da hori eta zer egin dezakegu?

Egia da egoera horiek gertatzen direla eta ohikoak direla: anai-arreben, lagunen eta abarren artean. Arrazoi bat baino gehiago egon daiteke horren atzean, besteak beste, gaztelaniaz aritzeko erraztasun handiagoa izatea eta umeentzat garrantzitsuak diren erreferenteak erdal hiztunak izatea (gurasoak, telebistako pertsonaiak, e.a). Egoera hori gertatzen bada zuen kasuan, umeekin hitz egitea komeni da zuen asmoak azaldu eta euskararekin duzun atxikimendua transmititzeko. Egorera horietan ez da komenigarria umeari errieta egitea horrek ondorio txarrak ekar ditzakeelako.

Euskara gaizki erabiltzen dutenean zuzendu egiten diet. Ona al da hori?

Seme-alabak txikiak direnean (3-6 urte ingururekin) ez da ona erabiltzen duten euskara zuzentzea. Hizkuntza ikasten eta garatzen ari dira, eta normala da batzuetan gaizki erabiltzea. Euskara erabili ahala gero eta hobeki egingo dute. Handiagoak direnean ere etengabe zuzentzen aritzea ez da egokia. Tartean zuzenketaren bat egin liteke; baina behin eta berriz zuzentzen badiegu esaten dutena haiekiko komunikazioa oztopatuko dugu eta euskaraz aritzea zaila eta desatsegina dela pentsa dezakete.

Nuestros hijos e hijas saben euskera pero entre ellos hablan en castellano. ¿Por qué pasa y qué podemos hacer?

Es cierto que esas situaciones se dan y son habituales: entre hermanos y hermanas, amigos y amigas, etc. Puede haber mas de una razón que motive ese comportamiento, entre otros, que vuestros hijos e hijas tengan mayor facilidad para hablar castellano y que sus referentes (padres/madres, personajes de la televisión, etc.) sean castellano hablantes. Si se da esa situación es conveniente que habléis con vuestros hijos e hijas y les transmitáis vuestro apego hacia el idioma. En esas situaciones no es conveniente reñir al niño o niña porque ello podría acarrear consecuencias negativas.

Cuando utilizan mal el euskera les corrijo. ¿Es bueno eso?

Cuando los hijos y las hijas son pequeños (con 3-6 años aproximadamente) no es bueno corregir el euskera que utilizan. Están aprendiendo y desarrollando el lenguaje, y es normal utilizarlo mal en ocasiones. Cuanto mas lo utilicen, mejor lo harán. Tampoco cuando son mayores es conveniente corregirles continuamente. Se puede hacer alguna corrección de vez en cuando, pero no de forma continuada porque dificultaremos la comunicación con ellos y ellas; pueden llegar a pensar que comunicarse en euskera es difícil y desagradable.

HIZKUNTZAREN ERABILERARI BURUZKOAK

RELACIONADOS CON EL USO DEL IDIOMA

Non lortu seme-alabentzako euskarazko liburu eta beste gai batzuei buruzko informazioa?

Euskarazko argitalpen ugari aurki ditzakezue merkatuan ume eta gaztetxoentzat, oro har, adinaren arabera sailkatuta. Web orri interesgarri bat www.katalogoa.eus da; bertan informazio baliagarria aurkituko duzue euskarazko liburu, disko eta beste gai batzuei buruz, batez ere, argitaratu berri direnei buruz. Liburutegi publikoak ere helburu horretarako oso leku interesgarriak dira, gainera, doakoak.

¿Dónde puedo obtener información sobre libros y otros materiales en euskera para mis hijos e hijas?

En el mercado se pueden encontrar numerosas publicaciones en euskera para el público, generalmente, clasificadas en función de la edad. En www.katalogoa.eus tenéis la opción de encontrar información sobre libros, discos y otros materiales, especialmente, novedades del año en curso. De todos modos tened en cuenta que también en las bibliotecas públicas podéis encontrar libros e información para ese objetivo, además, de manera gratuita.

OROKORRAK

GENERALES

Badauka desabantailarik elebidun izateak? Arazorik sortuko al die?

Ohikoa da neska-mutilen garapenean arazoren bat sortzea, dela gizarteratzeko, dela nortasuna garatzeko, dela osasun arazoren bat tarteko; eta normala da gurasoak horregatik kezkatzea. Zentzu horretan, hezkuntza arazorik agertzen denean, guraso batzuek elebitasunari egotzi ohi diote arazoaren zergatia. Baina arazo hori ume elebatar batek edukiz gero, zein da horren zergatia? Ume elebidun batek hezkuntza, gizarteratze edo bestelako arazorik izanez gero, arazoaren muina zein den argitu behar da hizkuntzari zuzenean leporatu gabe. Arazoa zein den argituta, umea laguntzen saiatzeko estrategiak zehaztu beharko dituzue.

Ezin da esan elebitasunak inongo eragozpenik ez dakarrela; izan ere, gerta daiteke umeak hizkuntzak egoki ez garatzea, salbuespenezko kasuren batean. Baina ume elebidunek eduki dezaketen eragozpenik handiena da ume elebatarrek baino apur bat beranduago hitz egiten hastea.

¿Tiene alguna desventaja que mi hijo o hija sea bilingüe? ¿Les supondrá algún problema?

Es muy común que aparezca alguna dificultad y preocupación en el crecimiento físico y social de cualquier niña o niño, así como el desarrollo de su personalidad y su salud. En ese sentido, cuando surge algún problema educativo, los padres y madres de niños y niñas bilingües tienden a achacar la causa del problema al bilingüismo. Pero, ¿cuál es la causa si un niño o niña monolingüe tiene el mismo problema? Si un niño o una niña bilingüe tiene problemas educativos, sociales o de otro tipo, el consejo general es el siguiente: hay que tratar de descubrir las posibles causas del mismo sin culpar a la utilización de dos lenguas. Una vez identificado el origen del problema, deberéis establecer estrategias con las que intentar ayudar al niño o la niña.

No sería cierto decir que el bilingüismo no tiene ningún inconveniente, pero, salvo casos excepcionales en los que no se llega a desarrollar ningún idioma correctamente, la mayor dificultad que puede presentarse es que el niño o la niña comience a expresarse algo después que otra persona conocedora de un único idioma.

OROKORRAK

GENERALES

Gure umeak euskara eta gaztelania nahasten ditu. Zer egin dezaket?

Euskara eta gaztelania nahastea arrunta da hizkuntzen garapenaren hastapenetan. Ume gehienek euskara eta gaztelania nahasten dituzte hainbat egoeratan eta hainbat lagunekin; baina, oro har, nahastea desagertu ohi da hizkuntza biak garatzen diren neurrian. Auzi horretan, familiak nabarmen lagundu ahal die umei hizkuntzak banatzen, hizkuntza bakoitzaren erabilera eremuak bereizteko ahaleginak eginez. Dena dela, oso garrantzitsua da umeari errieta ez egitea eta haren komunikazio ahaleginak hutsegitez ez hartzea, horrek ondorio txarrak ekar ditzakeelako.

Gure umeak arazoak dauzka ikasketetan, euskaraz ikasten duelako izango da?

Batzuetan, ume elebidunek zailtasunak dituzte ikasketetan. Hainbat arrazoik sor ditzakete zailtasunak, baina, oro har, bat ere ez da elebitasunaren erruz. Arrazoa hizkuntza baten edo bien garapen urria bada, ahaleginu garapen eskasiaren zergatiak aurkitzen eta bidea eman umeari bi hizkuntzak ondo garatzeko. Horretarako, jakina, kontuan hartu umeak zein esparrutan, zein egoeratan eta norekin erabiltzen duen euskara edo gaztelania.

Nuestro hijo/a mezcla el euskera y el castellano, ¿qué debo hacer?

Mezclar los dos idiomas es normal en los primeros momentos del desarrollo bilingüe. Hay distintos momentos y distintas maneras de mezclar los idiomas pero, en general, este fenómeno desaparece a medida que se desarrollan ambos idiomas. La familia puede ayudar de manera notable en ese proceso de separación de idioma, esforzándose por delimitar los usos de cada idioma. En cualquier caso, lo más importante es no criticarles en ningún caso y no hacerles ver como errores sus esfuerzos de comunicación, ya que ello puede tener un efecto negativo.

Nuestro hijo/a está teniendo dificultades con el aprendizaje, ¿será porque está cursando los estudios en euskera?

En ocasiones algunos niños y niñas bilingües tienen dificultades de aprendizaje originadas por diversas causas, pero, en general, ninguna de ellas derivadas del bilingüismo. Si la causa reside en el desarrollo insuficiente de alguno de los idiomas o de los dos, esfuérzate por descubrir las causas que han propiciado esa falta de desarrollo y ayuda a crear un ambiente donde pueda desarrollar ambos idiomas, tomando en consideración los distintos contextos, personas y ocasiones en los que se utilizan los dos idiomas.

OROKORRAK

GENERALES

Seme-alabak euskarazko ereduan matrikulatzearekin nahikoa al da elebiduntasun orekatua lortzeko?

Ez. Kontuan hartu behar duzue zuen seme-alabek urte osoko orduen %10 inguru daudela eskolan. Beraz, eskolak euskaraz eskaintzen dituen orduak hortik behera daude. Eskolan euskara ikasi eta erabiliko dute, baina eskolaren eragina mugatua da. Gainera, euskara eskolarekin soilik lotzea ez da komeni: umeei ikusi behar dute euskara tresna erabilgarria dela eta, gainera, gustuko gauzak ere egin ditzaketela hizkuntza horretan. Azken batean, euskarazko bizipen positiboak behar dituzte. Hizkuntzak ondo ikasteko asko erabili behar dira; beraz, eskolako hizkuntza euskara izanda ere, gehienetxe etxeko hizkuntza gaztelania da, eta hainbatentzat kaleko hizkuntza nagusia ere bai. Hortaz, egokiena eta lagungarriena izango da eskolaz kanpoko eskaintza ahalik eta euskaldunena izan dadin zuen seme-alabentzat: eskolaz kanpoko ekintzak, aisia, kultura edota klase partikularrak euskaraz.

¿Es suficiente con matricular a mis hijos/as en un modelo de euskera para que logren un bilingüismo equilibrado?

No. Tenéis que tener en cuenta que vuestros hijos e hijas pasan en la escuela, a lo largo de un año, aproximadamente un 10% de su tiempo. Por lo tanto, las horas que están en contacto con el euskera están por debajo de ese porcentaje. En la escuela aprenderán y utilizarán el euskera, pero la influencia de la escuela es limitada. Además, no conviene relacionar el euskera solo con el entorno académico: tienen que comprobar que el euskera es una herramienta útil y que además pueden realizar actividades que les gustan en ese idioma. Necesitan vivencias positivas en euskera. Para aprender bien los idiomas hay que utilizarlos mucho; por lo tanto, aunque el idioma vehicular en el centro sea el euskera, en muchos casos, el idioma hegemónico en casa y en la calle es el castellano. Por eso, lo más adecuado y lo que más puede ayudar a vuestros hijos e hijas es ofrecerles todas las actividades posibles en euskera fuera del ámbito académico: actividades extra escolares, ocio, cultura y/o clases particulares en euskera.

GOGOAN IZAN... TENED EN CUENTA...

ELEANITZAK IZATEAK ETA EUSKARAZ ONDO JAKITEAK ABANTAILA ASKO EMANGO DIZKIE:

KULTURALAK

Hizkuntza horietan irakur dezakete, abestiak entzun eta ulertu, hizkuntza horretan egiten den kulturaz disfrutatu...

KOMUNIKATIBOAK

Hizkuntza horiek erabiltzeko gai dira, eta, beraz, egoeraren arabera zein hizkuntza erabili aukeratu ahal izango dute.

LABORALAK

Hizkuntza bat baino gehiago jakiteak lanbide gehiagotarako eta leku gehiagotarako aukera emango die.

SOZIALAK

Abantaila guztien gainera, batez ere, abantaila sozialak izango dituzte: hizkuntzak behar dituzte jolasteko, ikasteko, lagunak egiteko, eguneroko harremanetan sortzen diren beharrei aurre egiteko... Bertako bi hizkuntza ofizialak ondo jakiteak tresna garrantzitsua dira honi begira.

LAGUNDU DIEZAIEGUN

- Eskolaz kanpo euskara erabiltzeko guneak izatea garrantzitsua da. Euskara erabiliz ondo pasako duten egoeretara bideratu seme-alabak: kirola, musika, dantza, antzerkia, udalekuak, ludoteka, e.a.
- Jarduera horiek euskaraz eskaintzeko aukera baldin baduzue ez izan zalantzarik, euskaraz aukeratu.
- Seme-alabek egingo duten jarduera ez badizuete euskaraz eskaintzen, eskatu. Antolatzaileak eskaria dagoela ikusten badute, euskaraz eskaintzen hasiko dira.
- Udaleko edo eskualdeko Euskara Zerbitzutik laguntzeko prest gaude: urratsak ematen ari gara gero eta jarduera gehiago euskaraz eskaini daitezten.

SER MULTILINGÜES Y SABER BIEN EUSKERA LES DARÁ MUCHAS VENTAJAS:

CULTURALES

Podrán leer en esa lengua, escuchar y entender canciones, disfrutar de la cultura que se desarrolle en ese idioma...

COMUNICATIVAS

Son capaces de utilizar esa lengua y por lo tanto podrán elegir el idioma de comunicación.

LABORALES

Saber mas de un idioma les abrirá la puerta a distintos trabajos y mas lugares.

SOCIALES

Sobre todo tendrán ventajas sociales: los idiomas les servirán para jugar, aprender, relacionarse, hacer frente a las necesidades cotidianas... Conocer bien nuestras dos lenguas oficiales será muy importante de cara a lo indicado.

AYUDEMOSLES

- Es importante que tengan actividades extra escolares en euskera. Actividades en las cuales utilizarán el idioma y se lo pasarán bien: deporte, música, danza, teatro, colonias, ludoteca, etc.
- Si tenéis la opción de realizar esas actividades en euskera no tengáis dudas, ¡adelante!
- Si las actividades programadas no te las ofrecen en euskera, solicitadlas en euskera. La entidad organizadora comenzará a ofrecer actividades también en euskera si ve que hay demanda.
- Los Servicios de Euskera municipales o comarcales os quieren ayudar: estamos dando pasos para que cada vez sea mayor la oferta en euskera.

EUSKARAZKO BALIABIDEEN TAULA

TABLA DE RECURSOS EN EUSKERA

Euskarak familian presentzia gehiago izateko baliabideen bilduma egin dugu: seme-alabekin euskara erabiltzeko balibaibdeak, euskara eta eleaniztasuna sustatzeari buruzko gomendioak, euskara ikasteko bide eta baliabideak, euskaraz egiten diren ekintzen agenda, e.a.

Hemos recogido en esta tabla unos recursos para que el euskera tenga mayor presencia en el ámbito familiar: recursos para utilizar el euskera con los/as hijos/as, consejos sobre el euskera y fomento del multilingüismo, vías y recursos para aprender euskera, agenda de actividades que se realizan en euskera, etc.

Edukia / Contenido	Esteka / Link
Gurasoentzako materiala, aholkuak eta tresna baliabideak (umeekin erabiltzeko hiztegia, jolasak, e.a). Material, consejos, herramientas y medios para padres y madres (diccionario para utilizar con los/as hijos/as, juegos, etc).	http://www.emangiltza.com/ http://www.bularretikmintzora.org
Euskal produktuen katalogoa (liburuak, musika, e.a). Catálogo de productos en euskera (libros, música, etc).	http://www.katalogoa.eus
Jolasak eta abestiak. Juegos y canciones.	http://www.aisia.com/
Ipuinak. Cuentos.	http://www.etxegiroan.com/
Marrazki bizidunak. Dibujos animados.	http://www.marrazkiak.euskal-encondings.com/
Karaokea. Karaoke.	http://www.txantxangorria.eu/
Zinema. Cine.	http://www.kulturklik.euskadi.net
Helduen euskalduntzea (HABE). Euskaldunización de personas adultas (HABE).	http://www.ikasbil.net/web/ikasbil.home
Arabako haur eta heldu euskaldunen agenda. Agenda para los niños/as y adultos/as euskaldunes de Álava.	http://www.hirinet.net/euskararen-agenda/txikia
Gurasoen premiak asetzeko gunea. Espacio para aclarar dudas de padres y madres.	http://www.guraso.com
Ku-ku! Haurrekin hitz egiten hasteko. Ku-ku! Para comenzar a hablar con ellos/as.	http://www.euskaraba.com



Arabako euskara zerbitzuak
Servicios de euskera de Álava